

**EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEAREN ARAUTEGIA, LAN ETA LANBIDE
ESPERIENTZIAREN ONDORIOZKO MASTER OFIZIALETAN CURRÍCULUM BARRUKO
KANPOKO PRAKTIKAK AITORTZEKO**

UPV/EHUko **Unibertsitateko Masterren Gestiorako Arautegia** izango da UPV/EHUren master ofizialetako kredituak lan esperientziatik eta lanbide esperientziatik aitortzeko erreferentziazko arautegia.

Indarreko arautegiarekin bat etorrira, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, UPV/EHUren arautegi orokorra osatzeko asmoz, eta Akademia Antolakuntzako Batzordeak hala proposatuta, honako hau onartu zuen **2022ko azaroaren 18an egindako bileran**:

Baliozkotzeko eskaera zein den, Masterraren Batzorde Akademikoak proposamenak egingo dizkio Fakultateko Antolamendu Akademikorako Batzordeari eskatutako curriculumeko kanpo praktikak onartzeko alde zein kontra, lan eta lanbide esperientzia dela eta.

Eskaerak jaso ondoren, Fakultateko Antolamendu Akademikorako Batzordeak **aldeko** ebazpena emango die baldintza hauek beteko lituzketen eskaera guztiei:

- Kasuan kasuko masterraren batzorde akademikoak aitortenaren aldeko txostena egitea.
- Titulazioa egiaztatzeko memorian bete dadila, lan eta lanbide esperientziaren ondoriozko kredituak aitortzeari eta transferitzeari, aitortzeko aukerari eta irizpideei buruz jasotakoa.
- Irizpiderik ezean eta lan eta lanbide esperientziaren ondoriozko kredituak aitortzearren, gutxienez 25 ordutako lan esperientzia eta lanbide esperientzia egiaztatua beharko da ECTS kreditu bat aitortu ahal izateko, betiere esperientzia hori tituluari dagozkion gaitasunekin lotuta badago.

Gainerako kasuetan, fakultatearen Akademia Antolakuntzako Batzordeak baloratu eta ebatziko ditu eskabideak.